

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

LURRALDE OREKAREN ETA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 16/2024 Foru Dekretua, uztailaren 16koa. Onestea ikasleak ikastetxeetatik igerilekuetako kirol instalazioetara garraiatzeko gastuak finantzatzeko laguntza lerro baten oinarri arautzaile orokorrak, bai eta 2023/2024 ikasturterako deialdia ere

Laguntza hauen bidez, 5.000 biztanletik beherako udalerrietako ikasleen garraioa finantzatzen lagundu nahi da, ikastetxeetatik eskola-orduetan igerilekuetako kirol-instalazioetara.

Lurralde Oreekako eta Lurralde Antolaketako Saila jakitun da landa-eremuan bizitzeak dituen zailtasunez, eta horrek kirol-jarduera jakin batzuk egiteko dituen mugez, inguruko beste udalerrri batzuetara joatea eskatzen baitute.

Kirol-jardueren sustapena azpimarratu behar da, betiere gure haurrek eta gazteek kirola egiteko duten eskubidea gailenduz, funtsezko alderdia baita beren bizitzaren eta hezkuntzaren garapenean. Hori dela eta, sail honek dirulaguntzen programa berri bat sortzea bultzatu du, landa-eremuko ikasleen garraioa finantzatzen laguntzeko, ikastetxeetatik igerilekuetako kirol-instalazioetara. Programa horrek nabarmen erraztuko du Arabako ikasleentzat eskola-orduetan igeriketako prestakuntza-ikastaroak egitea.

Era berean, laguntza-lerro berri hau ezartzeak ekitatea sustatzen du eta Arabako lurraldeen arteko oreka eta kohesioan eragiten du; izan ere, ikastetxeetako ikasle guztien arteko eskubide-eta aukera-berdintasuna bultzatzen du igeriketako kirol-jarduerak garatzeko, edozein lekutan bizi direla ere.

Dirulaguntza horiek eskuratzeko oinarri argiak eta zehatzak ezarri behar dira, objektibotasun-, lehia- eta publizitate-printzipioak bermatzeko, eta, era berean, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko 11/2016 Foru Arauan eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean aurreikusitakoa aplikatuz, laguntza horiek arautuko dituzten oinarri orokorrak aurkeztu dira 5.000 biztanletik beherako udalerrietako ikasleen garraio-gastuak finantzatzeko, ikastetxeetatik hasi eta igerilekuetako instalazioetaraino, eskola-orduetan.

Ebazpen honek oinarri arautzaileak eta dagokion deialdia batera onesten ditu, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko 11/2016 Foru Arauaren 21.2.a) artikuluan ezarritakoaren arabera.

Hortaz, deialdia idazteko, kontuan hartu da Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarriko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen testu bategina onesten duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak ezarritako arau esparrua.

Halaber, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen 11/2016 Foru Arauaren 7.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, deialdian kontuan hartu da euskararen erabileraren faktorea, Arabako Foru Aldundiak onetsitako hizkuntza normalizazioko politikaren esparruan, eta Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen arabera.

Arabako Foru Aldundiaren gobernuari, antolaketari eta araubide juridikoari buruzko martxoaren 15eko 10/2023 Foru Arauaren 24.5 artikulua xedatzen duenez, foru diputatuei dagokie Foru Gobernu Kontseiluari proposatzea bere sailari esleitutako gaiei buruzko foru dekretuak onets ditzala.

Ondorioz, Lurralde Oreka eta Lurralde Antolaketako diputatuaren proposamenez, eta Foru Gobernuaren Kontseiluak gaurko bilkuran aztertu ondoren, hauxe,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onestea 5.000 biztanletik beherako udalerrietako ikastetxeetako ikasleen guraso elkarreentzat diren dirulaguntzen oinarri arautzaile orokorrak. Dirulaguntza horien helburua da finantzatzea ikasleak ikastetxeetatik bertatik igerilekuko kirol instalazioetara eskola orduetan garraiatzeko gastuak.

Aipatutako oinarriak foru dekretu honen I. eranskin gisa jasotzen dira.

Bigarrena. Onestea aurreko apartatuan zehaztutako dirulaguntzak emateko deialdia, zeina 15.000,00 euroekin hornituta baitago.

Deialdia espedienteari lotuta geratzen da, eta foru dekretu honen II. eranskin gisa jasotzen da.

Hirugarrena. Dirulaguntzak Arabako Foru Aldundiaren 2024ra luzatutako 2023ko ekitaldirako aurrekontuko "10202. G/441100/48100110 Igeriketako ikasteko garraioa 2023-2024" partidaren kontura emango dira.

Laugarrena. Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu dadila.

Bostgarrena. Foru dekretu honek ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko uztailaren 16a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Lurralde Oreka eta Lurralde Antolamenduaren foru diputatua

ANARTZ GORROTXATEGI ELORRIAGA

Lurralde Oreka zuzendaria

LAURA PÉREZ BORINAGA

ERANSKINA I

5.000 biztanletik beherako udalerrietako ikasleen guraso-elkarteei zuzendutako dirulaguntzen oinarri orokorrak, ikasle horiek ikastetxeetatik igerilekuetako kirol-instalazioetara garraiatzeko gastuak finantzatzeko, eskola-orduetan**1. Xedea eta helburua**

Laguntza-programa honen helburua da landa-inguruneko arabar ikasleen garraioa finantzatzen laguntzea, ikastetxeetatik igerileku-instalazioetara, kolektibo horretan eskola-orduetan igeriketako prestakuntza-ikastaroak egin daitezzen sustatzeko.

Ikastetxeak Arabako 5.000 biztanletik beherako udalerrri batean egon behar dira, eta ikasleak derrigorrezko hezkuntzan.

2. Diruz lagun daitezkeen jarduerak

Diruz lagundu ahal izango dira 1. paragrafoan adierazitako ikasleei zuzendutako garraio-ekintzak, ikastetxeetatik igerilekuetako kirol-instalazioetara joateko, ikastetxeei lotutako irabazi-asmorik gabeko erakundeek sustatuta, zehazki, ikasleen guraso-elkarteei (IGE).

Deialdiak honako hauek jasoko ditu:

a. Hala badagokio, oinarri arautzaileak eta argitaratuta dagoen ALHAO ezartzen dituen xedepena adieraztea.

b. Dirulaguntza zein aurrekontu-kredituri egotzen zaion, eta deialdiko dirulaguntzen gehieneko zenbateko osoa, kreditu erabilgarrien barruan, edo, halakorik ezean, dirulaguntzaren zenbatetsitako zenbatekoa.

c. Dirulaguntzaren xedea, baldintzak eta helburua.

d. Dirulaguntza eskatzeko baldintzak eta horiek egiaztatze modua.

e. Prozedura izapidetzeko eta ebazteko organo eskudunak adieraztea.

f. Eskabideak aurkezteko epea eta modua.

g. Ebazteko eta jakinarazteko epea.

h. Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentuak eta informazioak.

i. Hala badagokio, eskaerak birformulatzeko aukera, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 27. artikuluan eta Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko 11/2016 Foru Arauaren 25. artikuluan xedatutakoaren arabera.

j. Ebazpenak administrazio-bidea amaitzen duen ala ez, eta, hala ez bada, gora jotzeko errekurtsioa zein organori jarri behar zaion.

k. Jakinarazteko edo argitaratzeko modua, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 41. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitakoaren arabera.

3. Gastu hautagarriak eta baldintza gehigarriak

1. Diruz lagundu daitezkeen gastutzat hartuko dira, soilik, diruz lagundutako jardueraren izaerari zalantzarik gabe erantzuten diotenak eta behar-beharrezkoak direnak, eta BEZa, berreskurazina bada.

2. Horrela, diruz lagundu daitezkeen aurrekontua sartu ahal izango dute ikasleen guraso-elkarteei (IGEek) landa-inguruneko ikasleak igerilekuraino eskola-orduetan garraiatzeko zerbitzua emateko egiten dituzten gastuek.

3. Oinarri hauen xede diren dirulaguntzak bateragarriak izango dira beste administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuetatik, Estatuakoetatik, Europar Batasunekoetatik edo nazioarteko erakundeetatik helburu bererako datozen beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin.

4. Dirulaguntzaren zenbatekoa ez da, inola ere, jardueraren kostua baino handiagoa izango, ez bakarrik, ez beste dirulaguntza eta diru-sarrera batzuekin batera.

5. Erakunde onuradunek diruz lagundutako jarduerak behar bezala eta erabat gauzatzeko beharrezkoak diren izapide eta baimen guztiak lortu beharko dituzte, bai lanak hasten direnetik bai behin betiko jasotzen diren arte.

4. Baliabide ekonomikoak

Kasuan kasuko deialdiak zehaztuko du oinarri hauen bidez deitutako dirulaguntzak guztira zenbatekoak izango diren eta aurrekontuko zein partidari egotziko zaizkion.

5. Erakunde onuradunak

Dirulaguntzen onuradun izan daitezke 5.000 biztanletik beherako udalerrietako ikastetxeei lotutako irabazi-asmorik gabeko erakundeak, zehazki, dirulaguntzaren xede den zerbitzua benetan ematen duten ikasleen gurasoen elkarteak (IGEak).

Ezin izango dira erakunde onuradun izan dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren IV. tituluan aipatzen diren arau-hausteengatik zigortuak izan direnak, ezta Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Indarkeria Matxistatik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan jasotako kasuetan ere.

6. Emateko prozedura. Dirulaguntzak baloratzeko eta esleitzeko irizpideak. Horien kuantifikazioa

Dirulaguntzak norgehiagoka-erregimenean emango dira. Aurrekontu-baliabideen zenbatekoa laguntzak finantzatzeko nahikoa ez bada, zenbatekoak hainbanatuko dira saldo horren mugara iritsi arte.

Zenbatekoa moduluka zehaztuko da, garraio-zerbitzuarekin lotutako adierazle objektibo batzuk kontuan hartuta, edo gastu errearen gaineko portzentaje baten bidez, deialdi bakoitzean eskatutako egiaztagiria eta ziurtagiria kontuan hartuta, egindako garraio-gastuak modu frogagarrian egiaztatuta. Horrenbestez, dagokion deialdian ezarriko da eman beharreko dirulaguntza kalkulatzeko metodologia.

Esleipendunek dirulaguntzaren baldintzak onartzen dituztela ulertuko da, baldin eta ebazpena jakinarazi eta hamar egun balioduneko epean dirulaguntzari idatziz uko egiten ez badiote.

7. Ordainketa eta erakunde onuradunak dirulaguntzaren xedea bete duela justifikatzeko modua eta epea

Dirulaguntza ordaindu baino lehen, haren xede den jarduera egin dela justifikatu behar da. Dirulaguntza ordaintzeko, deialdian adierazten den dokumentazioa aurkeztu behar da. Kasuan kasuko deialdian ezarriko da hura aurkezteko gehieneko epea.

Bat etorri foru araudian ezarritakoarekin, justifikatu beharreko aurrerakinak emateko aukera dago; horrelakoetan, erakunde onuradunek bi fasetan justifikatu ahalko dute ordainketa. Deialdian zehaztuko dira aurrerakinaren zenbatekoa, justifikatzeko epea eta ordainketak.

Justifikazioa honela egingo da, deialdian gehiago zehaztu badaiteke ere:

1. Modulurik ez badago:

a) Dirulaguntzaren xede den garraio zerbitzua gauzatzearekin lotuta egindako jardueren amaierako azalpen memoria zehatza. Hartan, ibilbideak, maiztasunak eta kobratutako zenbatekoak azaldu behar dira.

b) Diruz lagundutako jarduera egitean izandako gastu guztien zerrenda sailkatua. Zerrenda horrek gastu bakoitzari buruzko honako datu hauek jaso behar ditu: gastuen agiriaren edo fakturaren zenbakia, hartzekoduna, zenbatekoa, jaulkipen data eta ordainketa data.

c) Gastua egiaztatzen duten fakturak eta haien ordainagiriak.

d) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten bestelako diru sarreren eta jasotako edo eskatutako dirulaguntzen xehetasuna, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

e) Hala badagokio, itzulketaren ordainketa gutuna, aplikatu ez diren soberakinen kasuan, baita horietatik eratorritako interesena ere.

2. Moduluak badaude:

a) Dirulaguntza ematean ezarritako baldintzak bete direla egiaztatzen duen txostena, burututako ekintzak eta lortutako emaitzak adierazita.

b) Justifikazio memoria ekonomikoa. Gutxienez, atal hauek edukiko ditu:

b.1) Modulutzat jotzen diren unitate fisikoen kopuruari buruzko froga edo, horrelakorik ezean, onuradunaren aitortpena.

b.2) Dirulaguntzaren zenbatekoa, jardun memorian kuantifikatutako jardueretan eta oinarri arautzaileek edo, kasua bada, deialdiaren aginduek aurreikusitako moduluetan oinarriturik kalkulatu.

b.3) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten bestelako diru sarrera edo dirulaguntzen xehetasunak, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

Hori guztia dirulaguntza ematean ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko.

8. Babesa

Dirulaguntza jaso duen jarduera dela-eta egiten diren argitalpenetan, liburuxketan edo bestelako publizitate modu guztietan Arabako Foru Aldundiko Lurralde Orokaren Sailak emandako dirulaguntzaren berariazko aipamena egin behar da. Horrez gainera, generoaren ikuspegitik hizkuntza zuzen erabiltzen dela bermatuko da, eta informazioa emakume eta gizonei parekidesunez iristeko mezu eta kanal egokiak erabiliko dira. Halaber, diruz lagundutako jardueraren zabalkundea eta publizitatea, euskarria edozein dela ere (liburuxkak, kartelak, argitalpenak...), bi hizkuntza ofizialetan egin beharko da.

9. Dirulaguntza itzultzea

Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko 11/2016 Foru Arauan, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onesten duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan ezarritako kasuetan, jasotako dirulaguntza itzuli beharko da.

Jaso ondoren itzuli beharreko dirulaguntzak zuzenbide publikoko sarrera izango dira, eta Ekonomia eta Aurrekontu Araubidearen abenduaren 18ko 53/1992 Foru Arauak II. tituluko I. kapituluaren ezarritakoaren arabera kobratuko dira.

Kasu hauek oinarrien ez-betetzeak izango dira:

a) Justifikatzeko obligazioa ez betetzea.

b) Dirulaguntza eskuratzea eskatutako baldintzak bete gabe.

c) Dirulaguntza helburu baterako eskatu eta horretarako ez erabiltzea.

d) Onuradunak ez betetzea dirulaguntza jasotzeagatik jarritako baldintzak.

e) Kontrol edo egiaztatze jarduerak oztopatzea edo galaraztea.

f) Jarduera burutzeko behar den baino diru gehiago jasotzea. Kasu horretan, jardueraren kostuaren gainetik eskuratutako soberakina itzuli beharko da, dagozkion berandutze interesak gehituta.

g) Xede bererako beste dirulaguntzaren bat jaso dela ez aitortzea.

10. Egiaztapena

Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolakuntzaren Saileko diputatuak deialdi honen garape-nerako egokitzen diren ebazpenak emango ditu, dirulaguntza tramitatzen duen unitate organikoaren ekimenez, eta ekintzak abiarazi ahal izango ditu erakunde onuradunek emandako datuak egiazkoak direla eta oinarri hauetan araututakoa betetzen dela egiaztatzeko eta horretara behartzeko.

Horretarako, onuradunek konpromisoa hartzen dute beraiek egindako jarduerekin loturik dauden eta Lurralde Orekaren Sailak eskatzen dizkien datu eta agiri guztiak emateko. Era berean, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak, Kontuen Epaitegiak edo eskumena duten beste-lako erakundeek eskatzen dieten informazio guztia ere eman beharko dute.

11. Erantzukizunak

Onuradunek beren gain hartuko dituzte jarduera edo programak gauzatzearen ondoriozko erantzukizun guztiak, eta indarrean den legediak jarduerak edo programak gauzatzeko galde-giten dituen baimen guztiak eskatu beharko dituzte.

12. Aldaketak

Onetsitako dirulaguntza berriro aztertuko da, gastua finantzatzeko beste erakunde batzuek egindako ekarpen osagarriak edo beste diru sarrera batzuk ere erabili direla jakiten bada. Horrelakoetan, diruz lagundutako gastuen eta diru sarreraren arteko likidazioa egin eta hortik ateratzen den emaitza defizitarioa izango da dirulaguntzaren behin betiko gehieneko zenbatekoa.

Dirulaguntza emateko kontuan hartu diren baldintzetan aldaketaren bat gertatzeak eta, kasu guztietan, edozein entitate publiko edo pribaturen gai bererako dirulaguntzak edo laguntzak eskuratzeak emakida ebazpena aldatzea ekarriko du, eta dirulaguntzaren zati bat itzultzea. Behin dirulaguntza onetsitakoan, hura esleitzeko arrazoï izan ziren egitatezko inguruabarrek hura aldatzea eragiten badute, Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolakuntzaren Saileko diputatuak, dirulaguntzaren onuradunak arrazoituki proposatuta, bere esku izango du dirulaguntza aldatzea dagokion foru aginduaren bidez.

13. Interpretazioa

Oinarri hauen interpretazioaren inguruan sortzen diren zalantzak Arabako Foru Aldundiko Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolakuntzaren Sailak ebartziko ditu.

14. Errekurtsoak

Oinarri hauek eta beren ondoriozko administrazio egintza guztiak aurkaratu ahal izango dira Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak arautzen dituen kasuetan eta bertan finkatzen den moduan.

15. Aplikatu beharreko arautegia

Oinarri hauetan xedatzen ez den edozertarako honako arau hauek aplikatuko dira: Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen 11/2016 Foru Araua; Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra; uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren Erregelamendua onesten duena; 3/2023 Foru Araua, urtarrilaren 25ekoa, Aurrekontuei buruzko Arau Orokorra; indarrean dagoen aurrekontu antolamenduari buruzko foru araua; Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea; eta aplikagarriak diren gainerako arauak.

II. ERANSKINA

2024ko deialdia, 5.000 biztanletik beherako udalerrietako ikastetxeetako ikasleen guraso elkarteentzat diren eta Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Sailak norgehiagoka bidez emango dituen dirulaguntzak emateko, finantzatzeko ikasleak ikastetxeetatik bertatik igerilekuko kirol instalazioetara eskola orduetan garraiatzeko gastuak, 2023/2024 ikasturtean

1. Deialdiaren xedea

Deialdi honen xedea da Arabako Foru Aldundiko Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Sailak, aurrekontu kredituen kargura, 5.000 biztanletik beherako udalerrietako ikastetxeetako ikasleen garraio gastuak finantzatzeko diren dirulaguntzak emateko baldintzak, betebeharrak eta prozedura ezartzea. Dirulaguntza horiek 2023ko irailaren 1etik 2024ko martxoaren 31ra bitartean igerilekuetako kirol instalazioetara eskola orduetan joateko emango dira 2023/2024 ikasturtean.

Beraz, diruz lagundu ahal izango dira ikasle horiek igerilekuetaraino garraiatzeko ekintzak, baldin eta deialdi honetako 2. apartatuan ezarritako dirulaguntzen erakunde hartzaileek sustatzen eta kudeatzen badituzte.

Era berean, ikasleen ikasturtea hezkuntza sistemako derrigorrezko hezkuntzako ikasketen barruan egongo da.

2. Erakunde onuradunen betekizunak

Deialdi honetan jasotako dirulaguntzen onuradun izan ahalko dira 5.000 biztanletik beherako udalerrietako ikastetxeei lotutako irabazteko xederik gabeko entitateak, zehazki dirulaguntzaren xede den zerbitzua benetan ematen duten ikasleen guraso elkarteak (IGEak).

Horrez gain, dirulaguntza jasotzen duten ikasleen guraso elkarte (IGE) horiek onuradun izateko, dirulaguntza ematea zilegi egiten duen egoeran egon behar dute, edo oinarri arautzaileetan eta deialdi honetan jasotako egoeretan, eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko 11/2016 Foru Arauan ezarritako betekizunak bete behar dituzte.

Hori guztiori salbuespen honekin: ezin izango dira erakunde onuradun izan Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren IV. tituluan aipatzen diren arau hausteen-gatik zehapena jaso dutenak, ez eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan eta Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan jasotako kasuetan daudenak ere.

Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearekin bat etorritik, bi hizkuntza ofizialen tratamendu eta erabilera egokia bermatu beharko da.

3. Aurrekontuko zuzkidura eta dirulaguntzen zenbatekoa

Deialdiko dirulaguntzen programarako gehieneko hornidura 15.000,00 euro da, eta Arabako Foru Aldundiaren 2024ra luzatutako 2023rako aurrekontuko "10202. G/441100/48100110/0000 Igeriketan ikasteko garraioa" aurrekontu partidaren kontura izango da.

Dirulaguntza horiek emateko metodologia norgehiagoka bidez da. Hori dela eta, 2. apartatuan jasotako erakundeak hautatuko dira dirulaguntzen onuradun gisa, baldin eta eskabide onargarriak aurkezten badituzte; eta erakunde bakoitzari eman beharreko dirulaguntza ezarriko da. Hala ere, erabilgarri dagoen aurrekontuaren zenbatekoa ez bada nahikoa laguntzen zenbateko osoa finantzatzeko, dirulaguntzaren banakako zenbatekoak hainbanatu egingo dira diruz lagun daitekeen aurrekontuaren arabera dagokion beheranzko ehunekoan, harik eta aurrekontu partidaren saldo horren mugara iritsi arte.

Erakunde onuradun bakoitzari emandako dirulaguntzaren zenbatekoa dirulaguntzaren eskabidean aurkeztutako dokumentazioan jaso beharreko gastuen aurrekontu ekonomikoaren baliokidea izango da. Nolanahi ere, zenbateko hori erregularizatu ahal izango da, dirulaguntzaren xede diren ikasleen garraio zerbitzua gauzatzeagatiko kostu garbi erreala kontuan hartuta, horretarako ezarritako justifikazio agirietan sartuta.

4. Eskaerak aurkezteko epea eta modua. Eskaerak aurkezteko modua eta epea

Deialdi honen xede diren dirulaguntza eskaerak aurkezteko, hilabeteko epea egongo da, oinarri hauek ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta.

Eskaerak Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan aurkeztuko dira, telematikoki gaitutako izapide espezifikoaren bidez hemen:

<https://egoitza.araba.eus/es/-/ayudas-transporte-a-piscinas-AMPAs>.

Horretarako, alde aurretik erakunde eskatzaileek egoitza elektronikoan onartutako ziurtagiri elektronikoa bat eduki behar dute, identifikazio eta sinadura elektronikoa ahalbidetzeko (informazio hori eskuragarri dago esteka honetan: <https://egoitza.araba.eus/es/sede-electronica/conoce-la-sede/como-accedo>).

Era horretako laguntzak jaso nahi dituzten ikasleen guraso elkarteek (IGE) dagokion eskabidea aurkeztu beharko dute, egoitza elektronikoan horretarako ezarritako inprimaki normalizatua betez, erantsitako dokumentazioarekin batera. Dokumentazio horrek honako dokumentu hauek izan beharko ditu nahitaez:

a) Ikasleak ikastetxetik igerilekuraino garraiatzeko zerbitzuaren ezaugarri nagusien konfigurazioaren aurreikuspena azaltzen duen memoria. Bertan, ibilbidearen deskribapen xehatua, zerbitzua emateko modua, kobratu beharreko prezioak edo jaso beharreko diru sarrerak, hala badagokio, eta abar jasoko dira.

Ikasleak igerilekuetara garraiatzeko zerbitzuak ikasturte bakoitzean aurreikusten duen iraupena zehaztu beharko da.

b) Aurrekontu ekonomiko xehatua, dirulaguntzaren xede den jarduera gauzatzean aurreikus daitezkeen gastuen eta diru sarreraren kontzeptu guztiak banakatuta.

c) Hirugarrenaren altaren egiaztagiria egoitza elektronikoaren bidez, esteka honetan: <https://egoitza.araba.eus/eu/-/alta-modificacion-terceros-diputacion-foral-de-alava>.

Aurretik aipatutako eskaeraz eta erantsitako dokumentazioaz gain, dirulaguntza lortzeko nahitaezkoa izango da administrazioak administrazioen arteko elkarreragingarritasunari buruzko atal honetan adierazitako dokumentazioa aurkeztea edo lortzeko aurka ez egotea.

Foru administrazioak Administrazioaren esku dauden erakunde interesdunen datuei buruzko beharrezko egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu, bai eta dirulaguntza honen administrazio izapideak egiteko beharrezkoa den beste edozein ere. Hori dela eta, ez dira dirulaguntzen eskatzaileei ez zaizkie eskatuko administrazioen artean trukatu ahal diren datuak, baldin eta erakunde interesdunak datuak erabiltzearen aurka egiten ez badu; interesdunak aurka eginez gero, hark aurkeztu beharko ditu behar diren datuak edo agiriak. Administrazio publikoek datuak trukatzeko oinarria urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikulua da. Izan ere, artikulua horretan ezartzen denaren arabera, herritarrek ez dute zertan aurkeztu administrazio publikoek egindako agiririk, jatorrizko agiririk, aplikatzen den araudian eskatzen ez den daturik edo dokumenturik edo interesdunak lehenago administrazioen bati aurkeztutakorik. Gainera, 40/2015 Legeak 155. artikuluan ezartzen du administrazioek lankidetzan jardun behar dutela datu trukean eta herritarrei buruz dauzkaten datuak eman behar dizkiotela elkarri.

Erakunde interesdunak aurka egiten ez badu, trukatu ahal diren datu hauek bilduko dira:

— Erakunde eskatzaileari buruzko ziurtagiria, dagokion Ogasunak emana, zerga guztiak aurkeztu eta ordaindu direla egiaztatzen duena.

– Erakunde eskatzailearen ziurtagiria, Gizarte Segurantzarekiko ordainketak egunean dituela egiaztatzen duena, norberaren konturako jarduerak egiten baditu.

Nolanahi ere, Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Sailak aurkeztutako eskaerak behar bezala ulertzeko eta ebaluatzeko behar dituen informazio osagarri guztiak eskatu ahal izango ditu.

Baldin eta aurkeztutako eskaerak ez badituzte betetzen adierazitako baldintzak, Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Sailak interesdunei hamar eguneko epea emango die hutsa konpon dezaten edo nahitaezko agiriak aurkez ditzaten. Hori egin ezean, eskaera artxibatu egingo da, eskaeran atzera egin dutela ulertuz.

Dirulaguntzak eskuratzeko eskaerak aurkezteak esan nahi du deialdi honetan ezarritakoa formalki eta berariaz onartzen dela.

5. Deialdiaren ebazpena

Toki Administrazioaren eta Erronka Demografikoaren zerbitzua izango da prozedura izapidetzeko eskumena duen organoa.

Batzorde batek aztertuko ditu eskaerak. Batzordearen osaera: Lurralde Orekaren zuzendaria burua izango da, Lurralde Orekaren zuzendaritzari atxikitako teknikari bat izango da kidea, eta idazkari lanetan Toki Administrazioaren eta Erronka Demografikoaren zerbitzuaren burua ariko da.

Balorazio batzordeak oinarrietan eta deialdian ezarritako baldintzak betetzen dituzten eskabi-deak aztertuko ditu, eta txosten bat egingo du. Txosten horretan, baldintzak betetzearen emaitza zehaztuko du, bai eta erakunde onuradunen artean ezarriko diren banakako dirulaguntzen zenbatekoak ere, aurreko 3. apartatuan adierazitako irizpideen arabera.

Ez da egongo entzunaldiko izapiderik, ebazpenean ez baitira aintzat hartuko erakunde onuradunek aurkeztutako gertaerak eta agiriak baino.

Toki Administrazioaren eta Erronka Demografikoaren zerbitzuak proposaturik, organo eskudunak bidezkoa den ebazpena hartuko du, sei hilabeteko epean gehienez, deialdia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Epe horretan esanbidezko ebazpenik ematen ez bada, erakunde onuradunek ezetsizat jo ahal izango dute eskaera.

Eskaera bakoitzari dagozkion izapideak bete eta gero, Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko foru diputatuari aurkeztuko zaizkio, eta hark ebatziko ditu dagokion foru aginduaren bidez, zeinak amaiera emango baitio administrazio bideari.

Dirulaguntzak emateko ebazpenean jaso beharko da dirulaguntza zer erakunde onuraduni eman zaion, eta espresuki adieraziko da gainerako eskaerak ez direla onartu.

Ebazpen hori erakunde onuradunei jakinaraziko zaie Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 42. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Ebazpenak administrazio bidea agortuko du. Haren aurka, administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahal izango da Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegietan, bat etorri Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 8. artikuluan xedatutakoarekin, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazten denetik aurrera.

Erakunde onuradunen batek uko egiten badio, dirulaguntza eman zaiola jakinarazten zaionetik gehienez ere bi hilabeteko epean, deialdi honen 3. apartatuan aipatutako hainbanaketaren ehuneko birkalkulatuko da, hala badagokio.

6. Gauzatze epea

Dirulaguntzaren xede den jarduketa gauzatzeko epea 2023ko irailean hasten da, eta 2024ko ekainaren 30a baino lehen amaitu beharko da.

7. Dirulaguntzak justifikatzea eta ordaintzea

Ordainketak izendunak izango dira erakunde onuradun bakoitzarentzat.

Dirulaguntza ordaintzeko, egindako gastua egiaztatzen duten fakturak eta, hala badagokio, ordainagiriak aurkeztu beharko dira. Dokumentazio hori bidaltzeko epea 2024ko urriaren 15ean amaituko da.

Era berean, dirulaguntzaren azken justifikazioa 2024ko azaroaren 30a baino lehen aurkeztu beharko da, dirulaguntzaren xede den zerbitzu emate osoari buruzkoa izango da, eta honako dokumentazio hau jasoko du:

a) Dirulaguntzaren xede den garraio zerbitzua gauzatzearekin lotuta egindako jardueren amaierako azalpen memoria zehatza. Hartan, ibilbideak, maiztasunak, kobratutako zenbatekoak eta abar azaldu behar dira.

b) Aurkezteke dauden ordainagiriak.

c) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten bestelako diru sarreraren eta jasotako edo eskatutako dirulaguntzen xehetasuna, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

d) Hala badagokio, itzulketaren ordainketa gutuna, aplikatu ez diren soberakinen kasuan, baita horietatik eratorritako interesena ere.

8. Dirulaguntza galtzea

Onuradunek galdu egin ahalko dituzte deialdi honetan emandako dirulaguntzak, aldez aurretik espediente hasita, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko 11/2016 Foru Arauak eta Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak ezarritako kasuetan.

9. Publizitatea

Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da.

10. Azken klausula

Oinarri orokorretan eta deialdi honetan xedatuta ez dagoen guztia Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen 11/2016 Foru Arauak eta Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak arautuko dute, baita aplikagarriak diren gainerako arauak ere.